

EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTATISTIKA 2011

Euskal AEko I+G gastua BPGren %2,04 izan zen 2011n, %0,4 hazirik

Dedikazio osoan ari diren pertsonak, 17.879; 2010ean baino %2,0 gehiago

Ikerketa Zientifikoa eta Garapen Teknologikoa (I+G) Euskal AEn: 2011n, guztira 1.366,2 milioi euro inbertitu ziren, aurreko urtean baino %0,4 gehiago, EUSTATEk landutako datuen arabera.

Halere, aurreko urtearen aldean lau ehunenez txikiagoa da Euskal AEko BPGrekiko I+G gastua, %2,04.

1 Taula: gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2005-2011

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
I+G GASTUAK							
Guztira (Milioi euro)	823,5	907,7	1.090,3	1.263,9	1.280,9	1.360,3	1.366,2
Urteko gehikuntza (%)	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4
BPGaren aldean (%)	1,44	1,47	1,64	1,86	1,99	2,08	2,04
PERTSONALA (DOB) *							
Guztira	12.506	13.065	14.435	15.373	16.690	17.532	17.879
Urteko gehikuntza (%)	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0
Biztanleria landunaren gainean (‰)	13,0	13,2	14,2	15,1	17,0	18,0	18,5
Ikertzaileak (DOB) *							
Guztira	7.820	8.145	9.220	9.640	10.386	11.071	11.283
Urteko gehikuntza (%)	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9
Biztanleria landunaren gainean (‰)	8,1	8,3	9,1	9,5	10,6	11,4	11,7

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzat

Iturria: Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika

Dedikazio osoan (DOP) 17.879 pertsona aritu ziren; aurreko urtean baino %2,0 gehiago, okupatuena %1,85. Pertsona horien arteko 11.283 dedikazio osoko ikertzaileak dira; aurreko urtean baino %1,9 gehiago.

I+Gko langileen %34,7 emakumezkoak dira

I+G langileen arteko 6.204 emakumeak dira; I+G jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunekorik handienak herri-administrazioetan eta goi-mailako irakaskuntzan gertatzen dira, %51,3 eta %47,7. Enpresetan berriz, %29,7.

Euskal AEn egindako I+G gastuaren %76,0 enpresa-sektorean egikaritu zen

Egikaritze-sektoreei dagokienez, enpresek I+G gastuaren %76,0 (1.038,7 milioi) egikaritu zuten; %17,9 (244,3 milioi) goi-mailako irakaskuntzara bideratu zen, eta gainerako %6,1 (83,2 milioi) administrazioaren mendeko zenbait organismo publikok egikaritu zuten.

Goi-mailako irakaskuntzaren portzentajea 7 hamarrenez hazi da aurreko urtearen aldean; enpresaren sektoreak jarraitzen du izaten ikerketa-ahaleginik handiena egiten duena, baina 5 hamarren gutxiagoz. Administrazio Publikoaren pisua 2 hamarrenez gutxitu da.

2 Taula: I+Gko gastuak egikaritze sektoreen arabera (%)

	Euskal AE			Espainia	Europako Batasuna 27
	2009	2010	2011	2010	2010
Enpresak eta IAGEP	75,6	76,5	76,0	51,6	61,9
Herri administrazioa	6,4	6,3	6,1	20,1	13,7
Goi-mailako irakaskuntza	18,0	17,2	17,9	28,3	24,4

Iturria: Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika


Gaurko egunez ez dago ez Espainia, ez 27-EBko 2011ko daturik; 2010ean garbi dago ezen Euskal AEko gastu-egituran badagoela alderik Espainiako batez bestekoarekiko, non enpresek %51,6 egikaritu baitzuten, Goi-mailako irakaskuntzak %28,3 eta Administrazioa publikoak %20,1. 27-EBrekiko txikiagoa da egitura-aldea.

Enpresek jarduera-sektoreen arabera eginiko I+G gastuaz, %40,2 industrian kontzentratu zen 2011n, %56,9 zerbitzuetan eta %2,9 eraikuntzan eta lehen sektorean. Industri enpresetan zentratuz, nabarmentzekoak dira, barne I+Gz ari garela, ondoko jarduera adarrak: Garraio materiala (%7,8), Beste makineria (%5,8), Metalezko artikulak (%4,4). Zerbitzu-enpresetan, I+G jarduerak (%37,5) eta Beste enpresa-jarduerak (%9,6) dira baliabiderik gehien bideratzen dizkietenak I+G barne gastuari.

Euskal zientzia, teknologia eta berrikuntza sareko **Zentro Teknologikoen** pisuaz, 2011ko gastua, 231,2 milioi, guztiaren %16,9 ; dedikazio osoan 2.832 pertsona ari dira, %15,8. Aurreko urtearen aldean, 139,7 milioi eta 1.751 pertsona gehiago dira.

I+G gastuaren finantzaketan, portzentajeak aurreko urteetako antzekoak dira. Finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 741,4 milioi bideratu zituen ikerketara, guztiaren %54,3; finantzaketa publikoak 526,8 milioi, %38,6; goi-mailako irakaskuntzak 31,6, %2,3; atzerrikiko funtsek %60,4 milioi, %4,4; irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek, 6,0 milioi, %0,4.

1 Grafikoa: I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko. (%)



Iturria: Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika, EIN eta Eurostat

I+G gastuaren BPGrekiko bilakaerari begiratuz gero, ez dago 2011ko daturik ez Espainian, ez 27-EBn. Halere, esan daiteke Euskal AEko gastu-portzentajea BPGrekiko beti-beti izan dela Espainiako batez bestekoaren gainetik, eta 2010ean 27-EBko zifren gainetik zen. 2011n Euskal AEko adierazlean lau ehunenen gutxitzea dago.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](http://Euskal_Estatistika_Erakundea_Instituto_Vasco_de_Estadística)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko datu bankua](#)